

**ESKUBIDEETAN
OINARRITUTAKO
HEZKUNTZA**

**AUTOEBALUAZIORAKO
FITXA**

4. lan-taldea: Ikasleak



4. taldearen autoebaluaziorako fitxa

Ikasleak

AUTOEBALUAZIO PROZESUAREN MAPA

1. AUTOEBALUAZIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Antolamendua:

- 5 lan-talde.
- Talde bakoitzeko bilera 1.

Tresnak:

- Galdera-sortak.

Zereginak:

- Galdera-sortak betetzea.
- Hobekuntza-proposamenak adostea.
- Autodiagnostikoko bilerarako taldeko eleduna izendatzea.

Hasierako autoebaluazio eta diagnostikorako tresnak

- **Galdera-sorta:** lan-talde bakoitzerako bertsio bat. Online formatuan dago eta kolektiboetako bakoitzak lehen bileran bete beharko du.
- **Hobekuntza-proposamenetarako espazioa:** talde bakoitzak hautatu beharko du zer aldaketa egin ikastetxean.
- **Diagnostikoko termometroa:** galdera-sorten emaitzekin, taldeetako bakoitzak eskola-bizitzako hainbat esparruri buruz zer iritzi duen ikus dezakezue. Online bertsioan dago.
- **Hobekuntzako amaierako dokumentua:** talde bakoitzak egindako hobekuntza-proposamenetan oinarrituta, kolektibo bakoitzeko ordezkariak proposamen bateratua adostu beharko dute. Online bertsioan dago.
- **Aldatzeko ezagutu:** UNICEFen hezkuntza-ikuspegiari buruzko lan-taldeen eztabaida aberasteko informazioa.

Hemendik eskura ditzakezue: www.enredate.org/educacionenderechos

AUTOEBALUAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA

Aukerakoa

2. AUTODIAGNOSTIKOA ETA ERABAKIAK HARTZEA

Antolamendua:

- Koordinazio-talde 1.
- Bilera 1.

Tresnak:

- Diagnostikoko termometroa.
- Galdera-sortak.

Zereginak:

- Galdera-sorten emaitzak ebaluatzea.
- Zer esparrutan lan egin adostea (taldeek erabakitakoan oinarrituta).

UNICEF-ekin HARREMANETAN

- Zuzendaritza-taldea UNICEFEKIN harremanetan
- UNICEFek proiektua garatzeko moduari buruzko aholkuak ematea.
- Ikastetxeak proposamen onenak jarraitzeko konpromisoa hartzea.

Bilera-prozesuaren sekuentzia

1. bilera: autoebaluaioa eta hobekuntza-proposamenak

1. Taldeko parte-hartzaileen aurkezpena.
2. Saioak helburuen arabera egitea:
 - Onlineko galdera-sorta bete beharko da.
 - Hobekuntzako proposamen bateratua egin beharko da (ereduaren arabera).
 - Hurrengo bileran taldea ordezkatuko duen pertsona hautatuko da.
3. Parte-hartzea eskertzea.
4. Itxiera eta agurra.

IRAUPENA: 2 ORDU

BALIABIDEAK:

- Onlineko galdera-sorta
- Hobekuntza-proposamenak

2. bilera: autodiagnostikoa eta erabakiak hartzea

1. Taldeetako ordezkarien aurkezpena.
2. Saioak helburuen arabera egitea:
 - Ordezkarri bakoitzak diagnostikoari buruzko taldearen ondorioak azalduko ditu.
 - Ordezkarri bakoitzak taldearen hobekuntza-proposamena azaldu beharko du.
 - Hobekuntza-proposamen bateratua egin beharko da (ereduaren arabera).
3. Parte-hartzea eskertzea.
4. Itxiera eta agurra.

IRAUPENA: 2 ORDU

BALIABIDEAK:

- Diagnostikoko termometroa
- Hobekuntza-dokumentua

Haurren eskubideetan oinarritutako hezkuntza

Haurren eskubideetan oinarritutako hezkuntzak haur eta nerabe guztien eskubideak betetzea sustatzen du, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak ezartzen duen moduan. Era berean, betebeharren titularrek haien egitekoekin eskubide horiek errespetatzeko, babesteko eta betetzeko duten gaitasuna garatzen du.

Galderak	Guztiz desados			
	Desados	Ados	Guztiz ados	
1. Eskola-ordutegian irakasleei gure arazoak planteatzeko denbora dugu.				
2. Gure familiek etxeko lanekin laguntzen digute.				
3. Eskolan/institutuan irakasleek gure gaitasunetan konfiantza dute.				
4. Irakasleek haurren eskubideei buruz hitz egiten digute eskolan.				

Laburbilduta , eskolak/institutuak haurren eskubideak txertatzen ditu gure eskolako dokumentu ofizialetan, eta irakasgaien programazioan barnean hartzen ditu. Era berean, arreta pertsonalizatua eskaintzen digu eskola-orduetan				

Ebaluazioa eta hobekuntzak:

Puntu sendo adierazgarrienak:

Puntu ahul adierazgarrienak:

Garatu beharreko hobekuntza-proposamenak:

- Taldean erantzun behar diozue online bertsioan dagoen galdera-sortari (eskura www.enredate.org/educacionenderechos webgunean).
- Dokumentu hau zirriborro gisa erabil dezakezue lehen bileran, eta gero behin betiko bertsioa bete webgunean.

Haurren parte-hartzea eta beste eskubide batzuk

Parte-hartzeak gizarte-kohesioko prozesuak errazten ditu, eta pertsonen eta haien gizarte-ingurunearen ongizatea hobetzen du. Gizarte-ekimen batean modu aktiboan parte hartzen duten haurrek zabaldu egiten dute haien erkidegoko eskubideei, erantzukizunei eta betebeharrei buruzko ikuspegia.

Galderak

	Guztiz desados	Desados	Ados	Guztiz ados
5. Eskolak/institutuak gure proposamenak eta ideiak adierazteko espazioa eta uneak eskaintzen dizkigu.				
6. Espiritualtasuna eta sinesmenak inork barregarri utzi gabe edo mehatxuak jaso gabe adieraz ditzakegu.				
7. Gure familiekin batera hartzen dugu parte eskolaz kanpoko jarduerak lantzeko eta egiteko prozesuan.				
8. Guztiek nahi beste jostailu dugu eskolan/institutuan eta etxean jolasteko.				

Laburbilduta, eskola-bizitzari buruzko proposamenak egin ahal izateko bitartekoak eskaintzen dizkigu ikastetxeak, baita inork barregarri utzi gabe edo mehatxuak jaso gabe espiritualtasunaren edo sinesmenen adierazpenak egiteko bitartekoak ere. Horrez gain, gure familiekin batera hartzen dugu parte eskolaz kanpoko jarduerak lantzeko, kudeatzeko eta egiteko prozesuan.

Ebaluazioa eta hobekuntzak:

Puntu sendo adierazgarrienak:

Puntu ahul adierazgarrienak:

Garatu beharreko hobekuntza-proposamenak:

4. taldearen autoebaluaziorako fitxa

Ikasleak

Haurren babesa

Babes-ingurune batek esanahi du haurrak ikastetxean modu seguruan daudela, eta eskola-erkidegoak arriskuak badakizkiela eta arriskuei erantzuteko ahalmena duela. Bi babes-geruza horietako bat falta bada, areagotu egiten da esplotazioerekiko, tratu txarrekiko eta indarkeriarekiko haurren ahultasuna.

Galderak

	Guztiz desados	Desados	Ados	Guztiz ados
9. Eskolan/institutuan janaririk, arroparik, tratamendu medikorik edo etxerik ez duten haurrentzako eta nerabeentzako laguntzak daude.				
10. Eskolan/institutuan maiz gertatzen dira ikasleen kontrako mehatxuak, umilazioak, irainak, eraso fisikoak edo ziber-erasoak.				
11. Sexu-gehiagikerien eta sexu-erasoen kontrako prebentzioari buruzko heziketa jasotzen dugu.				
12. Arlo hauei buruzko heziketa jasotzen dugu:				
• Tabakoaren, alkoholaren eta drogen kontsumoa				
• Elikadura osasungarria eta bulimiaren eta anorexiaren prebentzioa.				
• Heziketa afektibo-sexuala eta haurdunaldi goiztiarren prebentziorako heziketa.				
• Bide-heziketa.				
• Internet modu seguruan erabiltzeko modua.				
13. Eskolan/institutuan guztiok balia ditzakegu eskaintzen diren baliabideak eta jarduerak.				
14. Eskolaren/institutuaren instalazioak seguruak dira eta ezgaitasun motaren bat duten haurrentzako eta nerabeentzako egokituta daude.				

Laburbilduta , eskolak/institutuak edozein indarkeria, gehiegikeria eta eraso sexualen aurka babesten gaitu, baita osasunaren aurkako jardunbide kaltegarrien kontra eta edonolako diskriminazioen kontra ere.				

Ebaluazioa eta hobekuntzak:

Puntu sendo adierazgarrienak:

Puntu ahul adierazgarrienak:

Garatu beharreko hobekuntza-proposamenak:

Eskola-giroa

Eskola-giro egokiaren bereizgarri dira pertsonen arteko harreman positiboa eta onarpen eta segurtasun emozionaleko sentimenduak. Errespetuzko balioak sustatzeak erkidego barruko loturak errazten ditu, baita eskolako jarduera ere. Giro positiboak, bestalde, taldearekiko eta eskolarekiko identifikazioa eta pertinentziaren sentimendua eta konpromisoa sustatzen du.

Galderak

	Guztiz desados	Desados	Ados	Guztiz ados
15. Berdintasunez eta errespetuz tratatzen gaituzte harreman hauetan:				
Ikasleen arteko harremanetan.				
Irakasleen eta ikasleen arteko harremanetan.				
Irakasleen eta gure familien arteko harremanetan.				

Laburbilduta , ikastetxearen eta familien arteko harremanak oso onak dira, eta, erabakiak hartzeko garaian, baterako parte hartzea oso handia da. Horrez gain, eskola-erkidego osoak gure onuraren aldeko konpromisoa hartu du.				

Ebaluazioa eta hobekuntzak:

Puntu sendo adierazgarrienak:

Puntu ahul adierazgarrienak:

Garatu beharreko hobekuntza-proposamenak: